



Gizarte Segurantzako afiliazioak gora egin du berriro

Gizarte Segurantzako afiliazioa

Urte bakoitzeko iraila. Milakoak




Iturria: Gizarte Segurantzak.

Irailan, Euskadiko Gizarte Segurantzako afiliazioa % 1,1 hazi zen urte arteko tasan. Guztira 1.018.000 afiliazio baino gehiago erregistratu ziren, balio historikorik onena irailerako. Eraikuntzaren sektorean nabarmen hazi zen afiliazioa (%2,1) industriak, berriz, hazkunde apalekin jarraitzen zuen (%0,1).

Langabezia erregistratuak behera egin zuen Irailan

Erregistratutako langabezia

Urte bakoitzeko iraila. Milakoak



Iturria: Lanbide


Irailan, Lanbideren bulegoetan erregistratutako langabezia % 1,0 murriztu zen aurreko urteko hil beraren aldean, eta, beraz, hama-bi hilabetez jarraian murriztu izan da 2024ko urritik. Murrizketa oso antzekoa izan zen bai emakumeentzat (%1,0) bai gizonentzat (%0,9)



Azalera handietako salmentetan beherakada abuztuan

Azalera handietako salmentak

Urte bakoitzeko abuztua. Indizea




Iturria: Eustat.

Abuztuan, Euskadiko azalera handietan eta elikadura kate handietan egindako salmentak %0,4 jaitsi ziren urte arteko tasan. Atzerakada hori elikagaien bilakaera negatiboak eragin zuen (-%0,9). Aldiz, gainerako produktuen salmentek (%0,7) eta enpleguak (%0,5) hazten jarraitu zuten.

Industria produkzioa %1,8 murriztu zen abuztuan

Industria produkzioaren indizea (IPI)

Urte bakoitzeko abuztua



Iturria: Eustat.

Eustaten datuen arabera, abuztuan Euskadiko industria produkzioa aurreko urteko hil berean erregistratutakoa baino % 1,8 txikiagoa izan zen. Ondasun mota guztiak gutxiago ekoizteak eragin zuen beherakada. Kontsumo ondasunen ekoizpena %2,0 jaitsi zen, ekipa ondasunena %1,7, bitarteko ondasunena %0,4 eta energiarena %5,4.